



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA



10\11\02\01\0218 espediente zk.

N.º expediente: 10\11\02\01\0218

NIK, ANTONIO DAMBORENEA
BASTERRECHEAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO
MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ANTONIO DAMBORENEA BASTERRECHEA,
SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL
PARLAMENTO VASCO,

ZIURTATZEN DUT

CERTIFICO

Eusko Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 20an egindako osoko bilkuran, 117/2013 Legez besteko Proposamena onetsi zuela, frankismoaren krimenen aurkako 4591/10 Kereilari buruz, ondoko testuaren arabera:

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 20 de junio de 2013, aprobó la Proposición no de Ley 117/2013, sobre la Querrela 4591/10 contra los crímenes del franquismo, con arreglo al siguiente texto:

1. Eusko Legebiltzarrak salatu egiten du Francisco Franco Bahamonde jeneralak 1936ko uztailan zuzendutako altxamendu militar faxista, 1931. urtean zilegitasunez eratu zen erregimen errepublikanoaren aurka jo zuela, bai eta ondorengo gerra ere, legez eraturako Espainiako, Kataluniako eta Euskadiko gobernuak amaitu baitzituen.
2. Eusko Legebiltzarrak salatu egiten du ondoren ezarri zen erregimen diktatoriala, zeinak berrogei urtez su eta gar zapaldu zituen askatasunaren, justizia sozialaren eta eskubide indibidualen zein kolektiboaren aldeko borroka- eta disidentzia-arrasto guztiak.
3. Eusko Legebiltzarrak salatu egiten du nekazaritzako, industriako eta finantzetako oligarkien eta Eliza katolikoko hierarkiaren parte handi baten jokabidea, babestu egin zuelako kolpismoa lehenengo eta ezarritako erregimen faxista gero.
4. Eusko Legebiltzarrak hitzematzen du beharrezko neurriak hartuko dituela 1936ko uztailako altxamendu militarrek, erregimen frankistak eta estatu-terrorismoak errepresaliatutakoei honako eskubide hauek baliatzea berma dakien: egiarako eskubidea, erregimen haren oinordekoek historia berridazteko egin dituzten saiakeriei aurre egiteko; benetako justiziarako eskubidea, gizateriaren aurkako krimenen erantzuleen oraingo zigorgabetasun-egoera gainditu ahal izateko; eta erreparazio duin eta ez-diskriminatzaileko eskubidea,

1. El Parlamento Vasco denuncia la sublevación militar fascista dirigida por el general Francisco Franco Bahamonde, en julio de 1936, contra el régimen republicano legítimamente constituido en el año 1931, y la posterior guerra que acabó con los gobiernos español, catalán y vasco legalmente constituidos.
2. El Parlamento Vasco denuncia el régimen dictatorial posterior que durante cuarenta años reprimió a sangre y fuego todo vestigio de disidencia y lucha por la libertad, la justicia social y los derechos individuales y colectivos.
3. El Parlamento Vasco denuncia el papel jugado por buena parte de las oligarquías agraria, industrial y financiera y la jerarquía de la Iglesia católica, con su apoyo al golpe primero, y al régimen fascista instaurado después.
4. El Parlamento Vasco se compromete a adoptar las medidas necesarias para garantizar a los represaliados y represaliadas por la rebelión militar de julio de 1936, por el régimen franquista y por el terrorismo de Estado el ejercicio de su derecho a la verdad sobre aquel régimen, para contrarrestar los intentos de reescribir la historia que se vienen realizando por sus herederos; el derecho a la justicia efectiva mediante la que se pueda superar el actual estado de impunidad de los responsables de los crímenes de lesa humanidad cometidos; y el

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org



frankismoaren ehunka mila biktimari egindako urraketengatik; eta, azkenik, gizarte osoaren eskubidea aldaketa soziopolitiko, juridiko eta instituzionaletara zuzendutako neurriak ezar daitezzen, berriro ez gertatzeko berme gisa.

5. Konpromiso horren haritik, Eusko Legebiltzarrak adierazten du babestu eta bat egiten duela Buenos Aireseko (Argentinako Errepublika) 1. Epaitegiko 4591/10 Kereilarekin, zeina María Servini de Cubría magistratuak aurrera daraman frankismoan izandako giza eskubideen urraketan arduradunen kontra, genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik.
6. Eusko Legebiltzarrak herritarrak animatzen ditu frankismoaren krimenen kontrako kereila babestera, bai kereila-jartzaile gisa pertsonatuta frankismoaren zuzeneko errepresaliatuak izan zirenak edo haien familiakoak, bai diktadura salatzen dutela eta krimenen eta kriminalen aurkako kereilarekin bat egiten dutela adierazita".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2013ko uztailaren 3an.

Ontzat emana
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO



Bakartxo Tejeria Otermin

derecho a una reparación digna y no discriminatoria por las vulneraciones causadas a los centenares de miles de víctimas del franquismo; y, por último, el derecho del conjunto de la sociedad a que se implementen medidas de cambios sociopolíticos, jurídicos e institucionales como garantía de no repetición.

5. En esta línea de compromiso, el Parlamento Vasco manifiesta su apoyo y adhesión a la Querrela 4591/10, del Juzgado n.º 1 de Buenos Aires (República Argentina), que lleva adelante la magistrada María Servini de Cubría por delitos de genocidio y lesa humanidad contra los responsables de la conculcación de los derechos humanos durante el franquismo.
6. El Parlamento Vasco anima a la ciudadanía a apoyar la querrela contra los crímenes del franquismo, bien personándose como querellantes quienes fueron directamente represaliados durante el régimen franquista o sean parientes de quienes lo fueron, o bien manifestando su denuncia de la dictadura y su adhesión a la querrela contra los crímenes y los criminales".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de julio de 2013.

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIA
EL SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA

Antonio Damborenea Basterrechea

